



ZBO ALDATZEA

Aurkezteko erabiltzen den kanala edozein dela ere (elektronikoa edo presentziala), ZBO aldatzeko eskabide-inprimakia Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoa dago, eta honen bidez sartu ahal da: www.trafikoa.eus edo www.trafikoa.eus.

Indarrean dagoen ZBO aldatu ahal da kasu hauetan:

- a) ZBOren TITULARRA aldatzen bada kausa hauengatik:
 - o GABAI baterako emandako jatorrizko ZBOren sartuta dauden ibilgailu motordun guztiekin lotutako garraio-enpresako baimenaren titulartasunean aldaketaren bat dagoelako.
REATen egiaztatuko da aldaketa hori gertatu dela eta noiztik aurrera daukan indarra.
 - o IB baterako emandako ZBOren agertzen den ibilgailu motordunaren erregistro-titulartasuna aldatu delako.
Erregistro-aldaketa hori erregelamenduz izapidetuta egon behar da ibilgailuen erregistroan eta ZBOren titular berria izango denaren izenean agertu behar dira ibilgailuak.
- b) ZBOren sartuta dauden IBILGAILUAK ORDEZKATZEA EDO, gehienez ere baimendu daitezkeen ibilgailuen muga errespetatuta, IBILGAILUAK GEHITZEA; salbu eta dagoeneko baimenduta dauden ibilgailuen kopurua muga horretara heldu bada. Kasu batean zein bestean, ZBOren sartzeko eskatzen diren ibilgailuek dagoeneko baimenduta daudenen ezaugarri baliokideak izan behar dituzte (ardatz kopurua eta ardatzen ezaugarriak, TOGM, AETOGM, tara)

Indarrean dagoen ZBOren aldaketak interesdunak eskatu baditu eta aldaketa horiek baimenaren funtsezko ezaugarriak aldarazten badituzte. Horrelakoetan beste ZBO bat izapidetu beharko da. Funtsezko ezaugarritzat hauek ditugu:

- a. Talde mota.
- b. Kargaren ezaugarriak, deskribapenaren edo identifikazioaren aldetik
- c. Masak, zirkulazio-abiadura edota taldeak abian dauzkan neurriak, hasieran baimendutakoak baino handiagoak edo txikiagoak direnean.
- d. Baimenaren indarraldia luzatzea, hasieran emandakoak zeukana baino handiagoa bada.
- e. Ibilbidea.
- f. Pasabide-murrizketak, -erreserbak edo zirkulazio-baldintzak.

ZBO indarrean dagoen bitartean, gerora sortutako arrazoiengatik, baimendutako ibilbidea osorik edo zati batean aldatu beharko balitz, Trafiko Zuzendaritzak hartu beharreko neurriak hartuko ditu eta interesdunei jakinaraziko dizkie.

Eskatzen den aldaketaren arabera, zein dokumentazio aurkeztu behar den, instrukzio honen II. eranskinean jasota dago.

Emanda dagoen baimen batean egindako aldaketek ez dute baimendutako taldearen baldintza teknikoetan inolako aldaketarik eragin behar.

Izapidetzean kontua hartu behar da sartu nahi den ibilgailua baimenaren barruan dauden gainerakoekin zein garraiatzen den kargarekin bateragarria izan behar dela. Horrelakoetan, espedienteak ebatziko dira eta jatorrizkoaren aginduak eta baldintzak mantenduko dira eta, hala badagokio, eguneratuko dira.

Emanda dagoen ZBOren sartu behar den/diren ibilgailua/ak bateragarriak ez badira, baimena aldatzeko eskaera ukatuko da.

Aldatutako ZBOren zenbakia ez da jatorrizkoaren zenbaki berdina izango, baina jatorrizkoari erreferentzia egingo dio eta aldatutakoa indarrean egongo da jatorrizkoaren indarraldiaren amaiera-datara arte, hau da, aldatutakoa indarrean egongo da jaulkitzen denetik aldatu den ZBOren indarraldia amaitzen den arte.

ZBO aldatzeko eskabidea jatorrizko baimena eman zuen Lurralde Bulegoak izapidetuko du.